



ikastolak



ARGIA IKASTOLA
FONTELLAS



Pantxika, Iratxe, Albert, Laura, Joseba, Uxue, Aser, Aimar. Beheko aldean, Endika, Arantza, Helene, Iker, Asier, Alejandro, Ander eta Unax.

“Egia, sudurraren ondoan begia!”

ALBISTE HAUEK EZ DIRA BENETAN GERTATUTAKOAK. GURE ASMOA AIPATZEN DITUGUN EGOERA HORIEK SALATZEA IZAN DA

Testuak eta argazkia Argia Ikastola

Kontuz! Jarraian dituzun albisteak luparekin irakurri beharrekoak dira. Ez letra tamainagatik; horretarako erabili betaurrekoak, lerro artean dagoena ongi ikusteko eta interpretatzeko baizik.

Hemen argitaratu ditugun albisteak ez dira benetan gertatutakoak. Egiant gertatu izan balira bezala kontatu ditugu, baina gure benetako asmoa egoera horiek salatzea edo kritikatzeta izan da. Titular batzuk benetakoak izatea gustatuko

litzaiguke, beste batzuk inola ere ez. Politikari, agintari, herritarrok, denok... hausnarketa egin beharra daukagu.

LEHENENGO IZURDEAK IKUSI DIRA EBRO IBAIAN Ebro ibaiko kutsadura guztiz desagertu da eta munduko ibairik garbiena izendatu dute. Munduko ibai garbien erakundeak (IGE) egin du ikerketa.

Nafarroako Gobernuak jarri du abian Ebron kutsadura murrizteko proiektua ibaira produktu toxi-

koak isurtzen dituzten lantegietan. Proiektuak oso harrera ona izan du eta langile eta nagusi guztiek buru-belarri betetzen dute. Ebroko Ur Konfederazioa arduratzen da behaketak egiteaz eta proiektua behar bezala betetzen ari dela ziurtatzen du.

2005ean hasi zen araudi berria aplikatzen eta urtez urte kutsadura maila nabarmen gutxiagotuz joan da. Konfederazioko kideek diotenez, gaur egun kutsadura maila guztiz desagertuta dago. Lege honen ara-

bera, lantegi guztiek Ebrora botatzen dituzten produktu kimiko guztiak, bota baino lehen, azterketa zorrotz bat pasa behar dute.

NEURRIZ GORAKO GARBIKETA DELA ETA, LANUZTEAK EGINGO DITUZTE ERRIBERAKO HIRIBURUAN Kale garbitzaileek greba egitea adostu dute bihartik hasita hilaren 18ra arte. Kontzentrazioak eta manifestazioak antolatu dituzte egun horietarako.

Tuterako kale garbitzaileek eta Erriberako hiriburuko garbiketa enpresa guztiek greba egitea adostu dute. Langileak zikinkeria faltaraz kezkatzen dira, zaborrik gabe ezin dute normaltasunez lan egin. Protestek apirilaren 18ra arte iraungo dute eta asteburuetan, manifestazioak eta kontzentrazioak egingo dira. Plaza Berrian bilduko dira larunbatero 12.00etan.

Aitor Castillo, Tuterako udaleko kale garbitzaileak, kaleak oso garbi, garden eta distiratsu daudenez, bere eta lankideen lana ondo ezin dutela egin adierazi digu. Lan gutxi dutenez, gutxiengo soldata kobratzen ari dira, eta dagoeneko bi lankide kanporatuak izan dira. ●

GEZURREZKO ALBISTEAK

Tuterako Udalak txakurren gorotzak garbitzeko kanpaina martxan jarri du

FONTELLAS – Tuterako Udalak kanpaina berri bat jarri du abian. Kaleetan pilatzen diren txakurren gorotzak jasotzen dituzten biztanleak ekonomikoki sarituko ditu. Udala osatzen duten kideen hitzetan, txakur-jabe askok ez du txakurren gorotzak jasotzeko ohiturarik eta kaleak zikin egoteaz gain, oso gaizki usaintzen dute. Modu honetara, gorotzak zapaltzerakoan izaten diren istripuak ere saihestu nahi izan dituzte. – U.J./L.R.

NATOk Bardeako tiro eremuan egindako praktika militarrik ondo baloratu dira

FONTELLAS – Erriberako alderdi politiko eta sozialak pozik agertu dira, pasa den asteazkenean hasita NATOk Bardeako tiro eremuan egingo dituen eragiketa militarrekin. Agintarien hitzetan, ikusgarria eta zirraragarria izan dira egunotan izan ditugun hegazkinen joan-etorriak, bonben ezantzen soinua eta lur-mugimenduak. Inguruko herrietako jendea ere pozik geratu da eragiketa guzti horiekin. Are gehiago, herri guztietan militar guztiei izugarritzko ongietorria egin diete eta egunero hamaiketakoak prestatu dizkiete. – A.E.-E.Y.

Tutera estatu mailan bidegorri gehien daukan hiria izendatu dute

FONTELLAS – Tutera gaur egun estatuan bidegorri gehien dituen hiria da. Orain bost urte *Bizi Tutera* proiektua martxan jarri zen Erriberako hiriburuan bidegorri sare bat eraikitzeko eta urtez urte bidegorri gehiago eraiki dira. Ondorioz, Tutera guztia zeharkatu daiteke bidegorriak erabiliz inongo eragozpenik gabe eta txirindula erabiltzaile kopurua haztea eragin du. – A.L./U.S.

LEHIAKETARAKO GALDERAK

1. Tuterako Udalak zer egingo du jasotako gorotzekin?
2. Nork egin behar du greba Tuteran?
3. Zein izan da “Bizi Tutera” taldearen helburua?

Bidali zuen erantzunak nie03@ikastola.eus helbidera, zure izen-abizenak, helbidea eta ikastolaren izenarekin batera.

IRABAZLEAK

OINEZ BALEA (1): Oier Zabaleta (Ibaialde Ikastola).
OINEZ BALEA (2): Kattalin Muratori (Baztan Ikastola).



Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan xedatzen dena betez, zure datu pertsonalak ZOZKETA fitxategian sartuta daudela eta horren helburua erakundeak antolatutako zozketak kudeatzeta dela jakinarazten dizugu. Fitxategia Datuak Babesteko Agentzian aitoritu dugu eta datuen segurtasuna bermatzeko neurriak ezarri ditugu.